



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerbitzu Orokorrak

Kodigoa 8.01

Genero Egokitasuna Baxua

Aurrekontua 1.849.650 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	1.999,70	1.778,05	1.987,73	2.054,84	1.849,65	-11,08%	11,79%	3,38%	-9,99%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	0,62%	0,56%	0,61%	0,21%	0,54%	-9,68%	8,93%	-65,57%	155,02%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programa honen oinarrizko helburua da koordinatzea eta kontrolatzea Departamentuak garatutako programak eta jarduerak, laguntza eta aholkularitza emanez bai foru diputatuari eta baita Zuzendaritza Nagusiei eta Zerbitzuei, eta Departamentuko administrazio eta informazio sistemetan hobekuntzak ekartzen dituzten jarduerak sustatuz.

Hori lortzeko egiten diren oinarrizko jarduketak dira:

- Azterketak eta irizpenak egitea.
- Departamentuko Erregistro Orokorra.
- Departamentuko jarduketaren dibulgazio ekintzak.
- Aurrekontu eta kontabilitate kudeaketa.
- Kudeaketa juridikoa.
- Departamentuko zeharkako planen koordinazioa.

Programa honetan sartzen dira Departamentuko kontusail orokor eta komunak, hala nola iragarkiak, liburuak eta harpidetzak, departamentuari atxikitako aholkularitza organoen gastuak eta abar.

Oro har, Departamentuko langileei zuzendutako jarduketak dira eta herritarrenganako eragina zeharkakoa da.



2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Departamentuko programetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako foru plana ezartzen laguntzea.	Organoek zeharkako planak ezartzea lortzeko adostu dituzten jarduketak aurrera eramane eta koordinatzea (aurrekontua, berdintasuna, prestakuntza, euskararen erabileraren normalizazioa, eta abar), helburutzat hartuta horietan guztietan generoaren ikuspegia txertatzea.		
Genero ikuspegiaren ezarpena sustatzea helburu hauek dituzten arloetan: Herritarrei egokitutako informazioa ematea Departamentuaren eskumeneko gaien inguruan.	Sexuen arabera banatzea programa honetan kudeatzen diren zerbitzuen erabiltzaileen datuak.		

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Ez da behar.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Analisi kualitatiboa programa honek laguntzen dituen programetan islatzen da.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Programa honek ez dauka zerikusi zuzenik kontuan hartu ohi diren gaitasunekin. Nolanahi ere, partaidetza ikuspuntuarekin zeharkako zerikusia du, jendeari ematen zaion informazioa eta sarrera-irteeren erregistroa kudeatzen dituelako.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

Ez

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez:



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Desgaituen laguntza
Kodigoa	8.10
Genero Egokitasuna	Handia
Aurrekontua	39.002.899 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	47.517,00	47.955,00	48.898,00	50.010,40	39.002,90	0,92%	1,97%	2,27%	-22,01%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	14,70%	15,08%	14,18%	14,90%	11,29%	2,58%	-5,97%	5,09%	-24,22%

Gastuaren zati handiena erabiltzen da desgaitasunak dituzten pertsoneri arreta ematen dieten entitateekiko lankidetzaz hitzarmenak finantzatzeko; nagusiki egoitza zerbitzuak edo etxebizitzak eta eguneko zentroak. Hala ere, hitzarmen gehienetan sartzen dira beste hainbat zerbitzu, hala nola familiei zuzendutako laguntza, aldi baterako egonaldia, aisialdia, eta abar.

2015eko aurrekontuan, programa honetan ez da gehitu lehendabiziko aldiz Uliazpi Fundazioari dagokion Transferentzia kontu-saila (14.999.053€), Foru Erakunde Publikoen kudeaketari dagokion 400 aurrekontuan sartu baita (Kabia Uliazpi).

Ondorengo kontzeptuak, garrantziaren arabera, honako hauek dira: buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroen sarea mantentzea eta kolektibo horrentzako eguneko zentroen sarea mantentzea.

Gainerakoa, aurrekontua osatu arte, kontzeptu oso desberdinek osatzen dute, hala nola pertsona heldu ezindu tutoretza, desgaitasunaren arloko entitateei zuzendutako diru laguntza nominatiboak, laguntza teknikoaren programa kudeatzeko kontratua, eta abar.

Laburbilduz, aurrekontu programa honetan sartzen dira Departamentuak desgaitasunak eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonen arloan gauzatzen dituen jarduketara ildo nagusiak, kontuan hartu gabe aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programaren helburu orokorra da pertsona desgaituei beren inguru naturalean (etxea, familia) mantentzea ahalbidetzeko beharrezkoak dituzten zerbitzuak eta laguntzak ematea. Eta hori posible ez denean, egoitzako arreta integrala eskaintzea, ahal den neurrian, bere gaitasunak mantentzea eta komunitatean integratzea ahalbidetuz.



Helburu orokor hori esku-hartze estrategikoko bi lerro hauek bidez gauzatzen da:

- Familiaren etxean mantentzen laguntzea.
- Beste aukerarik ez dagoenean, etxetik ateratzeko aukera ematea, kalitatezko egoitza batean.

Horrez gain, adimen osasuneko arazoak dituzten pertsonen arreta egokia eskaini nahi zaie –arazo hori oso espezifikoa eta desgaituen taldean gero eta ugariagoa baita-. Horretarako, zerbitzu bereziak eskainiko dira arlo soziosanitarioan, Adimen Osasuneko Sistemarekin behar bezala koordinatuta.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Desgaitasunak dituzten pertsonen arretan generoaren ikuspegia txertatzea sustatzea, honakoen bidez: Desgaituak ohiko ingurunean mantentzeko laguntza zerbitzuak. Ohiko ingurunea utzi behar dutenean, desgaituei arreta integrala emateko zerbitzu.	Programa honetan kudeatzen diren zerbitzu desberdinetako hartzaileei buruzko datuak sexuaren arabera bereiztea.	Zerbitzu kopurua	4

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

3. taula. Desgaitasun balorazioa duten pertsonen banaketa adinaren arabera, 2014/12/31n/
(%33 edo gehiagoko desgaitasuna baloratuta duten edozein adineko pertsona kopurua)/

Adin tartea/Tramo edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
0 a 2	7	20	27
3 a 17	663	394	1.057
18 a 64	14.393	9.883	24.276
<i>Subtotal</i>	<i>15.063</i>	<i>10.297</i>	<i>25.360</i>
65 a 79	8.389	6.102	14.491
80 y más	3.891	6.280	10.171
<i>Subtotal</i>	<i>12.280</i>	<i>12.382</i>	<i>24.662</i>
GUZTIRA / TOTAL	27.343	22.679	50.022
	54,7%	45,3%	



4. taula.- Desgaitasun tasa adinaren arabera, 2014/12/31n/
(aurreko datua, adin-tarte bakoitzari dagokion biztanleria osoagatik zatituta)/

Adin tarte/Tramo edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
0 a 2	0,06%	0,19%	0,13%
3 a 17	1,28%	0,80%	1,05%
18 a 64	6,36%	4,46%	5,42%
<i>Subtotal</i>	<i>5,21%</i>	<i>3,66%</i>	<i>4,45%</i>
65 a 79	18,46%	11,32%	14,59%
80 y más	25,56%	21,34%	22,78%
<i>Subtotal</i>	<i>20,24%</i>	<i>14,86%</i>	<i>17,13%</i>
GUZTIRA / TOTAL	7,82%	6,22%	7,00%

5. taula. Mendekotasuna duten pertsonak adinaren arabera banatuta, 65 urtetik beherakoak 2014/12/31n/
(mailako edo gehiagoko MBB¹ mendekotasun balorazioa duten 65 urtetik beherako pertsona kopurua)/

Adin tarte/Tramo edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
0 a 2	47	34	81
3 a 17	528	274	802
18 a 64	2.838	2.282	5.120
GUZTIRA / TOTAL	3.413	2.590	6.003
	56,9%	43,1%	

6. taula. Mendekotasun tasa adinaren arabera, adinekoak ez diren pertsonen artean, 2014/12/31n/
(aurreko datua, adin-tarte bakoitzari dagokion biztanleria osoagatik zatituta)/

0 a 2	0,43%	0,32%	0,38%
3 a 17	1,02%	0,56%	0,79%
18 a 64	1,25%	1,03%	1,14%
GUZTIRA	1,18%	0,92%	1,05%

7. taula. 2014an egindako MBB mendekotasun balorazioak, adin tarteka/
(2013an egindako MBB mendekotasun balorazioak, adin tarteka)/

Adin tarte/Tramo edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
0 a 2	154	139	293
3 a 17	173	97	270
18 a 64	587	434	1.021
GUZTIRA / TOTAL	914	670	1.584
	57,7%	42,3%	

¹ Mendekotasuna Balorazioaren Baremoa.



8. taula. Urteko mendekotasun balorazioen tasa, adin tarteka
(aurreko datua, adin-tarte bakoitzari dagokion biztanleria osoagatik zatituta)

Tramo edad / Adin tartea	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
0 a 2	1,41%	1,32%	1,37%
3 a 17	0,33%	0,20%	0,27%
18 a 64	26,00%	0,20%	0,23%
GUZTIRA / TOTAL	0,32%	0,24%	0,28%

9. taula. Mendekotasun egoeran dauden pertsonak adinaren arabera banatuta, 65 urtetik beherakoak, mendekotasun mailaren arabera, 2014/12/31n/

(1., 2. eta 3. graduetako mendekotasun balorazioa duten 65 urtetik beherako pertsonak)

MAILA / GRADO	Gizonezkoak / Hombres		Emakumeak / Mujeres		GUZTIRA / TOTAL	
3	702	48,8%	737	51,2%	1.439	100,0%
	20,6%		28,5%		24,0%	
2	1.307	58,3%	935	41,7%	2.242	100,0%
	38,3%		36,1%		37,3%	
1	1.404	60,5%	918	39,5%	2.322	100,0%
	41,1%		35,4%		38,7%	
GUZTIRA / TOTAL	3.413	56,9%	2.590	43,1%	6.003	100,0%
	100,0%		100,0%		100,0%	

10. taula. Mendekotasuna ez duten adineko pertsonen mendekotasun tasa, mailaren arabera, 2014/12/31n/
(aurreko datua, biztanleria osoagatik zatituta)

Maila / Grado	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
3	0,24%	0,26%	0,25%
2	0,45%	0,33%	0,39%
1	0,49%	0,33%	0,41%
GUZTIRA / TOTAL	1,18%	0,92%	1,05%

11. taula. Programako zerbitzu nagusien bidez artatutako pertsonak 2014an/
(erreferentziatzen hartuta urtean zehar artatutako pertsonak)/

Zerbitzuak / Servicios	GUZTIRA / TOTAL	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres
Desgaitasuna duten pertsonetarako egoitzak / Alojamiento para personas con discapacidad	813	56,5%	43,5%
Buruko nahaste larria duten pertsonetarako egoitzak / Alojamiento para personas con trastorno mental grave	240	67,5%	32,5%
Desgaitasuna duten pertsonetarako eguneko zentroak / Centros de día para personas con discapacidad	703	52,8%	47,2%
Buruko nahaste larria duten pertsonetarako errehabilitazio psikosoziala zentroak / Centros de rehabilitación psicosocial para personas con trastorno mental grave	270	67,4%	32,6%
GUZTIRA / TOTAL	2.026	57,9%	42,1%



12. taula. Programako zerbitzu nagusien estaldura 2014an/
(urtean zehar artatutako pertsona kopurua, 65 urtetik beherako 100 biztanleko)

Zerbitzuak / Servicios	GUZTIRA / TOTAL	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres
Desgaitasuna duten pertsonetzako egoitzak / Alojamiento para personas con discapacidad.	14,00%	0,16%	13,00%
Buruko nahaste larria duten pertsonetzako egoitzak / Alojamiento para personas con trastorno mental grave.	0,04%	0,06%	0,03%
Desgaitasuna duten pertsonetzako eguneko zentroak / Centros de día para personas con discapacidad.	0,12%	13,00%	0,12%
Buruko nahaste larria duten pertsonetzak errehabilitazio psikosoziala zentroak / Centros de rehabilitación psicosocial para personas con trastorno mental grave.	0,05%	0,06%	0,03%
GUZTIRA / TOTAL(1)	36,00%	41,00%	30,00%

(1) Estaldura desberdinen batura, nahiz eta pertsona batek zerbitzu bat baino gehiago jaso ditzakeen

13. taula. Programako zerbitzu nagusien estaldura 2014an, mendekotasuna duten pertsonen artean/
(urtean zehar artatutako pertsona kopurua, 65 urtetik behera eta mendekotasuna duten 100 biztanleko)

Zerbitzuak / Servicios	GUZTIRA / TOTAL	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres
Desgaitasuna duten pertsonetzako egoitzak / Alojamiento para personas con discapacidad.	12,86%	12,75%	13,01%
Buruko nahaste larria duten pertsonetzako egoitzak / Alojamiento para personas con trastorno mental grave.	3,88%	4,60%	2,93%
Desgaitasuna duten pertsonetzako eguneko zentroak / Centros de día para personas con discapacidad.	11,66%	10,78%	12,82%
Buruko nahaste larria duten pertsonetzak errehabilitazio psikosoziala zentroak / Centros de rehabilitación psicosocial para personas con trastorno mental grave.	4,43%	5,22%	3,40%
GUZTIRA / TOTAL (1)	32,83%	33,34%	32,16%

(1) Estaldura desberdinen batura, nahiz eta pertsona batek zerbitzu bat baino gehiago jaso ditzakeen



14. taula. Estaldura 2014an, mendekotasun mailen arabera, programako zerbitzu nagusietan/
(urtean zehar artatutako pertsona kopurua, 65 urtetik behera eta mendekotasuna duten 100 biztanleko)

Zerbitzuak / Servicios		GUZTIRA / TOTAL	Gizonezkoak / Hombres	Emakumeak / Mujeres
		12,86%	12,75%	13,01%
Desgaitasuna duten pertsonetako egoitzak/ Alojamientos para personas con discapacidad.	Grado 1	7,23%	6,70%	7,41%
	Grado 2	52,00%	7,57%	9,84%
	Grado 3	29,12%	34,47%	24,02%
		3,88%	4,60%	2,93%
Buruko nahaste larria duten pertsonetako egoitzak/ Alojamientos para personas con trastorno mental grave.	Grado 1	6,69%	7,19%	5,34%
	Grado 2	3,26%	3,83%	2,46%
	Grado 3	0,69%	0,85%	0,54%
		11,66%	12,78%	12,82%
Desgaitasuna duten pertsonetako eguneko zentroak/ Centros de día para personas con discapacidad.	Grado 1	2,27%	2,07%	2,40%
	Grado 2	11,06%	9,72%	12,94%
	Grado 3	27,87%	30,20%	25,64%
		4,43%	5,22%	3,40%
Buruko nahaste larria duten pertsonetako errehabilitazio psikosoziala zentroak/ rehabilitación psicosocial para personas con trastorno mental grave.	Grado 1	6,51%	7,34%	4,68%
	Grado 2	4,86%	5,36%	4,17%
	Grado 3	0,76%	0,71%	0,81%
		32,83%	33,34%	32,16%
GUZTIRA / TOTAL	Grado 1	22,70%	23,29%	19,83%
	Grado 2	27,70%	26,47%	29,41%
	Grado 3	58,44%	66,24%	51,02%

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Hartzaileak:

Programaren izenak adierazten duen bezala, zerbitzu mota honen hartzaileak dira, oro har, "desgaitasuna duten pertsonak". Teknikoki, termino honek bi adiera ditu:

- 1.- % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila baloratuta duten pertsonak.
- 2.- Mendekotasun egoeran dauden 65 urtez azpiko pertsonak (1. mailako edo gehiagoko MBB balorazioa).

Lehenengo adierari erreparatzen badiogu, hartzaileak ia 49.000 pertsona dira (3. taula), eta termino absolutuetan gehiago dira gizonak emakumeak baino. Gizonezkoen presentzia handiagoa 3 urtetik 79 urtera bitarteko adin-tarteetan ematen da. Emakumeen presentzia handiagoa da, aldiz, 0-2 adin tartean (oso kasu gutxi direnez datu honek ez du balio estatistikorik) eta 80 urtetik gorako adin tartean.

Kopuru horiek adin tarte bakoitzeko biztanleria osoarekin alderatzen baditugu (4. taula), ikusi daiteke desgaitasun tasa handiagoa dela gizonen artean, guztizkoari dagokionez eta adin-tarte guztietan (0-2 adin tartean izan ezik), baita 80 urtetik gorakoen artean ere.

Generoen arteko diferentzia honek osagai biologiko garrantzitsua du; izan ere, hainbat desgaitasun eta patologia desgaitzaile daude gizonen bakarrik -edo gehienbat- eragiten dietenak (adibidez, autismoa). Baina, zalantzarik gabe, eragile kultural bat ere badago: gizonen eta emakumeen bizimodu desberdinek eragiten dute eratorritako desgaitasun batzuk (traumatismoak, toxikoen kontsumoak,...) gehiago ukitzea gizonen emakumeak baino.

Nolanahi ere, desgaitasun egoerak (%33 edo gehiagoko desgaitasun maila) kasuistika oso zabala biltzen du. Askotan, inolako zerbitzurik behar ez duten pertsonak daude, eta kasu horietan, foru administrazioaren babes ekintza desgrabazio fiskalak (batez ere PFEZn), hobariak (Mugi txartela) eta horrelakoak aplikatzen mugarritzen da, eta horiek



guztiak ez dira aurrekontu programa honetan sartzen.

Benetan, programa honen hartzaile nagusiak bigarren adieran biltzen direnak dira: adinekoak ez diren pertsonak, mendekotasun egoeran daudenak (adineko pertsonak beren aurrekontu programa propioa baitute).

Adiera honekin (5. taula), hartzaile kopurua nabarmen murrizten da, 5.800 pertsona ingurura hain zuzen. Esan behar dugu pertsona horiek guztiak, edo gehienak behintzat, sartuta daudela desgaitasuna aitortuta duten 49.000 pertsonen artean.

Ikusi daitekeen bezala (5. taula), gizonezkoen presentzia handiagoa da hemen ere, lehen aipatu diren arrazoiengatik. Izan ere, defizientzia desgaitzaileek, azken instantzian, mendekotasuna eragin dezakete. 6. taulak erakusten digu kasu honetan ere mendekotasun tasak eragin handiagoa duela gizonengan, talde honen adin tarte guztietan (0-2 adin tartean izan ezik, baina datu honen ez du balio estatistikorik).

Biztanleria tarte hauaztertzen badugu (5. eta 6. taulak), ikusi daiteke sexuen arteko asimetria handia dagoela. Izan ere, batetik, desgaitasunek eta buruko gaixotasun larriek eragin handiagoa dute oro har gizonengan (autismoa, traumatismoen ondorioz etorritako desgaitasunak, toxikoen kontsumoak eragindako buruko gaixotasunak,...).

Bestetik, mendekotasunaren balorazioa lehenengo urrats bat da, ondoren zerbitzu motaren bat eskatu ahal izateko. Ikerketek erakusten dute emakumeak aurreratuagoetan hasten direla zerbitzu mota hau erabiltzen. Emakumeek, arrazoi "kulturalak" medio, denbora luzeagoz mantentzen dute autonomia (edo autonomiaren pertzepzioa). Era berean, familiak gehiago presionatzen ditu gizonak, etorkizunaren inguruko erabakiak hartzera. Horrek eragin dezake emakumeek beranduago egitea mendekotasunaren balorazioa eta, beraz, horrek azaldu dezake, neurri batean, zergatik den txikiagoa mendekotasun tasa emakumeen artean.

Hain zuzen ere, 7. taulak erakusten digu 2013an egin diren mendekotasun balorazioen kopurua, adin tarteka. Ikusi daiteke adin tarte guztietan (0-2 tartean izan ezik) balorazioen proportzioa handiagoa dela gizonen artean. Balio horiek tasa bilakatzen baditugu (8. taula), berdin ikusten da balorazioen tasa handiagoa dela gizonen artean adin-tarte guztietan (0-2 tartean izan ezik).

Mendekotasun balorazioa MBB tresnarekin egiten da (mendekotasun legetik dator). Eskala bat da, eta mendekotasuna 0-100 bitartean neurtzen du. Pertsona bati mendekotasuna aitortzeko, honek 25 puntu edo gehiago eskuratu behar ditu. Puntuazio horretatik aurrera, mendekotasuna 1. mailakoa (moderatua), 2. mailakoa (larria) edo 3. mailakoa (handia) izan daiteke.

Adinekoak ez diren eta mendekotasuna duten pertsonak mailaka banatzen baditugu (9. eta 10. taulak), ikusi daiteke mendekotasunaren larritasuna handiagoa dela emakumeen artean; hau da, emakumeen artean guztizko mendekotasun tasa txikiagoa den arren, balorazioa dutenei mendekotasun maila handiagoa aitortzen zaie.

Hori koherentea da lehen esandakoarekin: hau da, emakumeek denbora luzeagoz mantentzen dutela autonomia pertzepzioa, eta laguntza eskatzera jotzen dutela (eta, beraz, mendekotasuna baloratzera) soilik andeatzea oso aurreratua dagoenean.

Zerbitzuak:

11. taulak ikusi daitekeen bezala, gizonen proportzioa handiagoa da zerbitzu guzti-guztietan. Diferentzia bereziki nabarmena da buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonen zuzendutako zerbitzuetan; izan ere, zerbitzu horietan gizonezkoen presentziak bikoiztu egiten du emakumeena.

Biztanleria orokorraren gaineko estaldurari dagokionez (12. taula), diferentzia horrek eragiten du estaldura tasak nabarmen altuagoak izatea gizonezkoen artean.



Hala eta guztiz ere, mendekotasun egoeran dagoen 65 urtetik beherako biztanleriaren gaineko estaldura tasa kalkulatzen badugu (horiek baitira zerbitzu hauen benetako hartzaileak) -13. taula-, ikusi dezakegu genero arteko desberdintasuna nabarmen txikitzen dela. Bestalde, buruko gaixotasun larriak dituztenentzako zerbitzuetan, generoen arteko diferentziak handia izaten jarraitzen du, gizonezkoen presentzia askoz ere handiagoa baita; hala ere, diferentzia hori, neurri batean, konpentsatu egiten da desgaitasun zerbitzuetan (ugariagoak) ematen den kontrako diferentziarekin.

Azkenik, mendekotasun graduen araberako azterketa xehatuagoa egiten badugu (14. taula), ikusi daiteke mendekotasun gradua handiagoa den heinean, estaldura ere handiagoa dela, noski. Salbuespena da buruko gaixotasuna duten pertsonentzako zentroen kasua; bertan, zentro horien antolaketagatik, mendekotasun maila moderatuak eta larriak dituzten pertsonak artatzen dira batez ere.

Joera horrek berdin eragiten die gizonei zein emakumeei. Hala ere, ikusi daiteke emakumeen kasuan progresioa apalagoa dela ("lauagoa").

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Programa honek, nabarmen, bi gaitasunen gainean eragiten du:

1. Zaintza egokiak jasotzea.
2. Etxe ingurune seguru eta egokia edukitzea.

Zalantzarik gabe, zaintza egokiak jasotzea da programak garbien eragiten duen gaitasuna; izan ere, ber helburua da, azken buruan, mendekotasuna duten pertsonen behar duten arreta ematea.

Bestalde, eta kontuan hartuta zaintza horiek askotan mendekotasuna duten pertsonen etxebizitzatan ematen direla, horrek berak bermatzen du mendekotasuna duten pertsonen etxe ingurune seguru eta egokia edukitzea; bestela, pertsona horiek etxe ingurunetik atera beharko liriateke, erakunderen batean sartzeko.

Nolanahi ere, erakundeetan sartzan direnen kasuan ere, zentroa mendekotasuna duen pertsonaren etxebizitza izatera pasatzen da.

Bestalde, ez da gutxietsi behar programa honek gaitasun hauengan ere duen eragina:

1. *Aisialdia*: Desgaitasunaren arloko entitateekin sinatutako hitzarmen askok jasotzen dituzte, baita ere, aisialdirako berariazko lerroak.
2. *Partaidetza sozial eta politikoa*: programa honen bidez mantentzen dira desgaitasuna duten pertsonen elkarte gehienak eta, azken buruan, Desgaituen Gipuzkoako Aholku Batzordea.
3. *Osasuna*: Zerbitzu askok osasun zerbitzuekiko koordinazioa bultzatzen dute, eta osasun zerbitzu oso espezifikoak ere eskaintzen dituzte.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez:



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Adinekoen laguntza

Kodigoa 8.11

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 127.645.237 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	128.829,00	127.081,00	135.280,00	128.237,24	127.645,24	-1,36%	6,45%	-5,21%	-0,46%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	39,86%	39,96%	39,22%	39,07%	36,96%	0,25%	-1,86%	-0,38%	-5,41%

Gastuaren zatirik handiena adineko pertsonentzako sareko egoitzetara edo hitzartutako egoitzetara bideratzen da. Ondoren Eguneko zentroetara eta udalek adineko mendeko pertsoneri eskaintzen dieten etxeko laguntza zerbitzuetara

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Aurrekontu programa honek Departamentuak adineko pertsonen arloan garatzen dituen jarduketa ildo nagusiak biltzen ditu, inbertsioak eta aldizkako prestazio ekonomikoak alde batera utzita. Departamentuan aurrekontu handiena duen programa da.

Helburu orokorra da mendekotasuna duten adineko pertsonak beren ohiko ingurunean (etxea, familia) baldintza egokietan mantentzeko beharrezkoak diren laguntzak ematea, eta, adineko pertsona bere ingurunetik atera behar denean, arreta integraleko zerbitzuak ematea.

Hartzaileak: Mendekotasuna duten adineko pertsonak eta haien familiak. Gipuzkoan, mendekotasun mailaren bat duten adineko pertsonak 19.800 dira.

Programak jarduketa hauen finantzazioa biltzen du:

- A) Bizikidetzatza alternatibei dagokienez, programa honek adineko pertsonentzako egoitza plaza soziosanitarioen foru sarea finantzatzen du.
- Adineko pertsonentzako egoitzen programa.
 - Egoitza unitate soziosanitarioak.



B) Ohiko ingurunean jarraitzeko laguntzei dagokienez, besteak beste:

- Udalek mendekotasuna duten pertsoneri ematen dieten etxeko laguntza zerbitzuaren finantzazioa.
- Adineko pertsonentzako eguneko zentroak.
- Sendian programa, familia zaintzaileei laguntzeko.

Azkenik, hemen sartzen da baita ere balorazio jarduera, bai desgaitasunarena eta baita mendekotasunarena ere. Balorazioa funtsezkoa da Departamentuak kudeatzen dituen prestazio eta gizarte zerbitzuak eskuratu ahal izateko, hala agintzen baitu legeak.

- Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioa.

Balorazioak 3 tresna biltzen ditu: MBB, RAI eta desgaitasuna. Adierazi behar da balorazioa, aurrekontuei dagokienez, adineko pertsonen arreta programan sartzen bada ere, berez biztanleria osoari zuzentzen zaiola; hala ere, praktikan, MBB eta RAI tresnekin baloratzen diren pertsona gehienak adineko pertsonak dira. Desgaitasunaren kasuan, berriz, adin aniztasuna handiagoa da.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen arretan genero ikuspegia txertatzea, honakoen bidez: - Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak beren ohiko ingurunean mantentzeko laguntza zerbitzuak - Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen arreta integralerako zerbitzuak/	Sexuaren arabera bereizi programa honek kudeatzen dituen zerbitzu mota bakoitzaren hartzaileen datuak	Zerbitzu kopurua	6
	Sexuaren arabera bereizi estaldura tasak, bai zerbitzu bakoitzari dagozkionak, baita guztizkoari dagokiona ere	Zerbitzu kopurua	6
		GUZTIRA	1

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

3. taula. Mendekotasuna duten adineko pertsonen banaketa, 2014ko abenduaren 31n/
(mendekotasuna duten 65 urtetik gorako pertsonak)

	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	Guztira / Total
Kopurua / Número	6.067	14.222	20.289
%	29,9%	70,1%	100,0%



4. taula. Mendekotasuna duten adineko pertsonak adinaren arabera 2014/12/31n/
(1. graduko edo gehiagoko MBB mendekotasun balorazioa duten 65 urtetik gorako pertsonak)

Adin tartea / tramo de edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	Guztira / Total
65 a 79	2.009 43,1%	2.653 56,9%	4.662 100,0%
80 y más	4.058 26,0%	11.569 74,0%	15.627 100,0%

5. taula. Adineko pertsonen mendekotasun tasa, adinaren arabera, 2014/12/31n/
(aurreko data, adin tarte bakoitzeko biztanleria osoagatik zatituta)

Adin tartea / tramo de edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	Guztira / Total
65 a 79	4,42%	4,92%	4,69%
80 y más	26,66%	39,31%	35,00%
GUZTIRA / TOTAL	10,00%	17,07%	14,09%

6. taula. 2014an zehar egin diren MBB mendekotasun balorazioak, adin tarteka/
(2014an zehar adin tarte bakoitzean egin diren MBB mendekotasun balorazioak)

Adin tartea / tramo de edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	Guztira / Total
65 a 79	924 43,0%	1.226 57,0%	2.150 100,0%
80 y más	2.007 31,6%	4.346 68,4%	6.353 100,0%
GUZTIRA / TOTAL	2.931	5.572	8.503
	34,5%	65,5%	100,0%

7. taula. Mendekotasun balorazioen urteko tasa, adin tarteka/
(aurreko data, adin tarte bakoitzeko biztanleria osoagatik zatituta)

Adin tartea / tramo de edad	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	Guztira / Total
65 a 79	2,03%	2,28%	2,16%
80 y más	13,18%	14,77%	14,23%
GUZTIRA / TOTAL	4,83%	6,69%	5,91%



8. taula. Mendekotasuna duten adineko pertsonak, mendekotasun graduaren arabera 2014/12/31n/
(1., 2. eta 3. graduetako mendekotasun balorazioa duten 65 urtetik gorako pertsonak)

MAILA / GRADO	Gizonezkoak / Hombres		Emakumezkoak / Mujeres		GUZTIRA / TOTAL	
3	1.660	27,4%	4.398	72,6%	6.058	100,0%
	27,4%		30,9%		29,9%	
2	2.161	30,3%	4.978	69,7%	7.139	100,0%
	35,6%		35,0%		35,2%	
1	2.246	31,7%	4.846	68,3%	7.092	100,0%
	37,0%		34,1%		35,0%	
GUZTIRA / TOTAL	6.067	29,9%	14.222	70,1%	20.289	100,0%
	100,0%		100,0%		100,0%	

9. taula. Mendekotasun tasa, graduka (65 urtetik gorakoetan) /
(aurreko data, adineko pertsonen guztizkoagatik zatituta)

MAILA / GRADO	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
3	2,74%	5,28%	4,21%
2	3,56%	5,98%	4,96%
1	3,70%	5,82%	4,93%
GUZTIRA / TOTAL	10,00%	17,07%	14,09%

10. taula. Mendekotasun tasa, graduka (80 urtetik gorakoetan) /
(aurreko datua, baina 80 urte eta gehiagoko biztanleriari dagokionez)

MAILA / GRADO	Gizonezkoak / Hombres	Emakumezkoak / Mujeres	GUZTIRA / TOTAL
3	7,82%	13,00%	11,23%
2	9,37%	13,73%	12,24%
1	9,47%	12,59%	11,53%
GUZTIRA / TOTAL	26,66%	38,08%	35,00%

11. taula. 2014an zehar programako zerbitzu nagusien bidez artatutako pertsona kopurua /
(urtean zehar artatutako pertsonak)

ZERBITZUAK / SERVICIOS	GUZTIRA / TOTAL	GIZONEZKOAK / HOMBRES	EMAKUMEZKOAK / MUJERES
Adinekoen egoitzak / Residencias de mayores	5.533	31,2%	68,8%
Etxeko laguntza / Ayuda a Domicilio (Dependientes).	3.460	27,2%	72,8%
Eguneko zentroak / Centros de día	2.293	28,5%	71,5%
Unitate soziosanitarioak / Unidades sociosanitarias.	250	54,4%	45,6%
Aldi baterako egonaldiak / Estancias temporales	758	32,7%	67,3%
ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA / TOTAL PERSONAS ATENDIDAS	12.294	30,1%	69,9%
PROCENTAJE BRUTO DE EFICACIA MEDIANTE SERVICIOS	61,9%	54,0%	66,0%

(1) Programan altan dauden erabiltzaileak



12. taula. 2014an zehar programako zerbitzu nagusiek izan duten estaldura
(2013an zehar artatutako pertsonak, 65 urtetik gorako 100 biztanleko)

ZERBITZUAK/ SERVICIOS	GUZTIRA / TOTAL	GIZONEZKOAK / HOMBRES	EMAKUMEZKOAK / MUJERES
Adinekoen egoitzak / Residencias de mayores	3,84%	2,84%	4,57%
Etxeko laguntza / Ayuda a Domicilio (Dependientes).	3,43%	2,26%	4,28%
Eguneko zentroak / Centros de día	1,59%	1,08%	1,97%
Unitate soziosanitarioak Unidades sociosanitarias.	0,17%	0,22%	0,14%
Aldi baterako egonaldiak / Estancias temporales	0,53%	0,41%	0,61%
GUZTIRA / TOTAL	9,56%	6,81%	11,57%

(1) estaldura desberdinen batura, nahiz eta pertsona batek zerbitzu bat baino gehiago jaso ditzakeen

13. taula. 2014an zehar programako zerbitzu nagusiek izan duten estaldura, mendekotasuna duten adinekoen artean
(2013an zehar artatutako pertsonak, mendekotasuna duten 65 urtetik gorako 100 biztanleko)

Zerbitzuak / Servicios	GUZTIRA / TOTAL	GIZONEZKOAK / HOMBRES	EMAKUMEZKOAK / MUJERES
Adinekoen egoitzak / Residencias de mayores	26,90%	27,40%	26,60%
Etxeko laguntza / Ayuda a Domicilio (Dependientes).	17,10%	15,50%	17,70%
Eguneko zentroak / Centros de día	11,30%	10,70%	11,50%
Unitate soziosanitarioak Unidades sociosanitarias.	1,20%	2,10%	0,80%
Aldi baterako egonaldiak / Estancias temporales	3,60%	3,90%	3,50%
GUZTIRA / TOTAL	60,10%	59,60%	60,10%

(1) estaldura desberdinen batura, nahiz eta pertsona batek zerbitzu bat baino gehiago jaso ditzakeen

14. taula. 2014an zehar programako zerbitzu nagusiek izan duten estaldura, mendekotasun graduen arabera/
(2013an zehar artatutako pertsonak, mendekotasuna duten 65 urtetik gorako 100 biztanleko)

Zerbitzuak/		GUZTIRA/	GIZONAK/	EMAKUMEAK/
Adinekoen egoitzak / Residencias de mayores		26,90%	27,40%	26,60%
	Grado 1	8,33%	13,05%	6,15%
	Grado 2	27,43%	29,29%	26,62%
	Grado 3	47,90%	44,52%	49,18%
Etxeko laguntza / Ayuda a Domicilio (Dependientes).		17,10%	15,50%	17,70%
	Grado 1	20,33%	15,14%	22,74%
	Grado 2	14,99%	14,07%	15,39%
	Grado 3	15,65%	17,83%	14,82%
Eguneko zentroak / Centros de día		11,30%	10,70%	11,50%
	Grado 1	4,79%	3,74%	5,28%
	Grado 2	11,12%	10,92%	11,21%
	Grado 3	19,03%	19,82%	18,74%
Unitate soziosanitarioak Unidades sociosanitarias.		1,20%	2,10%	0,80%
	Grado 1	0,82%	1,60%	0,47%
	Grado 2	1,01%	1,76%	0,68%
	Grado 3	1,72%	3,25%	1,14%
Aldi baterako egonaldiak / Estancias temporales		3,60%	3,90%	3,50%
	Grado 1	1,57%	1,60%	1,55%
	Grado 2	3,40%	4,12%	3,09%
	Grado 3	6,36%	6,87%	6,16%
GUZTIRA / TOTAL		60,10%	59,60%	60,10%
	Grado 1	35,84%	35,13%	36,19%
	Grado 2	57,95%	60,16%	56,99%
	Grado 3	90,66%	92,29%	90,04%



4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Hartzaileak:

Lehen ere adierazi den bezala, programa honen hartzaileak dira, bereziki, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak. Adineko pertsona guztien % 14 dira gutxi gorabehera (143.980 pertsonatik 20.289).

3. taulan ikusi daiteke nabarmen feminizatuta dagoela mendekotasuna adineko pertsonen artean; horrela, guztizkoaren ia bi heren dira emakumeak (%70).

Adineko pertsonen taldean bi multzo bereizten dira, nahiko nabarmen: 80 urtetik beherakoak eta adin horretatik gorakoak. 4. eta 5. tauletan ikusi daitekeen bezala, mendekotasunak gora egiten du nabarmen 80 urtetik gorakoen artean, mendekotasun arriskua 7,46gatik biderkatzen baita (% 4,69tik %35era igarotzen da). Jauzi hori askoz ere nabarmenagoa da emakumeen artean (7,99) gizonen artean baino (6,03).

2013an zehar egindako balorazio kopuruari dagokionez, balorazio gehiago egin zaizkie emakumeei (6. taula); hala ere, biztanleria osoaren gaineko balorazio tasa hartzen badugu kontuan, zifrak orekatu egiten dira, nahiz eta emakumeen tasa zertxobait altuagoa izan (7. taula).

Zentzu horretan, esan dezakegu 65 urtetik beherako emakumeei ustez eragiten dien fenomeno kulturala (ikus 100. programa), mendekotasun balorazioa eskatzeko erabakia geroratzea ekartzen duena, arindu edo desagertu egiten da adinarekin; horrela, desagertu egiten dira, beraz, norberaren andeatzea eta laguntza beharra aitortzeko errezeloak, bai adineko pertsonaren aldetik, bai eta bere ingurunearen aldetik ere.

Mendekotasun graduen araberako analisiari dagokionez:

- Batetik, emakumeen presentzia handiagoa da gradu guztietan (portzentaje horizontalak). Hori logikoa da, gehiago direlako.
- Bestetik, emakumeen mendekotasunean larritasun handiagoa ematen da (portzentaje bertikalak). Hala ere, diferentzia horiek ez dira 65 urtetik beherako pertsonen artean bezain nabarmenak (ikus 100 programari dagokion fitxa),

9. taulan ikusi daitekeen bezala, adineko pertsonen mendekotasun tasa, gradu guztietan, nabarmen handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Oro har, emakumeen tasa gizonena baino % 70 handiagoa da. Mendekotasun tasa handiago hori garbia da, baita ere, 80 urte edo gehiagokoen artean, nahiz eta adin-tarte horretan diferentzia zertxobait txikiagotu.

Zerbitzuak:

Mendekotasuna duten adineko pertsonen datuetan ematen den asimetriak erakusten du, noski, nabarmen handiagoa dela emakumeen presentzia mendekotasuna duten adineko pertsonen zuzendutako zerbitzuetan (11. taula); salbuespen bakarra da unitate soziosanitarioena (oso kopuru txikiak direnez, baliteke adierazgarriak ez izatea). Guztira gizon bakoitzeko 2,3 emakume artatu dira.

Logikoki, asimetria honetan bi faktore daude:

1. Emakumeen biztanleria handiagoa da (adineko 1,37 emakume, gizon bakoitzeko; edo 1,93 emakume gizoneko, 80 urtetik gorakoen artean).
2. Emakumeen mendekotasun tasa handiagoa da (%70 handiagoa).



Biztanleria faktorea kenduta, eta balio horiek biztanleria osoaren gaineko estaldura tasa bihurtzen baditugu, diferentziak nabarmen murrizten dira, arreta jasotzen duen gizon bakoitzeko 1,70 emakumeko tasara iritsi arte (12. taula).

Gainera, mendekotasun tasaren faktorea kentzen badugu (13. taula), zifrak berdindu egiten dira, nahiz eta emakumeen artean estaldura zertxobait handiagoa izan.

Bi fenomeno horiek eragiten duten distortsioa desagerrarazten badugu (13. taula), ikusten da litekeena dela emakumeek joera handixeagoa izatea hain instituzionalak ez diren zerbitzuen alde (gehiago etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroak, eta gutxiago egoitzak). Hori koherentea da lehen deskribatu diren faktore kulturalekin.

Zerbitzuetan artatutako graduak aztertuz gero (14. taula) berretsi egiten da irudipen hori; izan ere, 1. graduak (aukeratzeko ahalmen gehiago dute) estaldura konbinatuaren tasa honela banatzen da:

- Emakumeen artean: Etxeko laguntza zerbitzua, % 63; behin-beineko egonaldia %8,5; eguneko zentroa, % 14,6; URSS %1,3 eta egoitza, % 17.
- Gizonen artean: Etxeko laguntza zerbitzua, % 43; behin-beineko egonaldia %4,5; eguneko zentroa, % 10,6; URSS %4,5 eta egoitza, %37.

Hau da, emakumeen kasuan nabarmena da alternatiba ez instituzionalen aldeko joera, eta gizonen kasuan oso garrantzitsua da egoitzen presentzia.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Programa honek gaitasun hauetan eragiten du gehienbat:

1. Zaintza egokiak jasotzea.
2. Etxe ingurune seguru eta egokia edukitzea

Zalantzarik gabe, zaintza egokiak jasotzea da programak garbien eragiten duen gaitasuna; izan ere, bere helburua da, azken buruan, mendekotasuna duten adineko pertsonen behar duten arreta ematea.

Bestalde, eta kontuan hartuta zaintza horiek askotan mendekotasuna duten adineko pertsonen etxebizitzatan ematen direla, horrek berak bermatzen du mendekotasuna duten pertsonen etxe ingurune seguru eta egokia edukitzea; bestela, pertsona horiek etxe inguruneetik atera beharko liriateke, erakunderen batean sartzeko.

Nolanahi ere, erakundeetan sartzen diren kasuan ere, zentroa mendekotasuna duten adineko pertsonen etxebizitza izatera pasatzen da.

Bestalde, ez da gutxietsi behar programa honek gaitasun hauengan ere duen eragina:

1. Aisialdia: Mendekotasuna duten adineko pertsonen arloko erakundeekin sinatutako zenbait hitzarmenek aisialdirako leeri espezifikoak hartzen dituzte barruan.
2. Partaidetza sozial eta politikoa: programa honen bidez mantentzen dira desgaitasuna duten adineko pertsonen elkarte gehienak eta, azken buruan, Adineko Pertsonen Gipuzkoako Aholku Batzordea.
3. Osasuna: Zerbitzu askok osasun zerbitzuekiko koordinazioa errazten dute, eta osasun zerbitzuak ere eskaintzen dituzte zuzenean, adinekoentzako egoitzetan adibidez./



6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.067 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena PLANGINTZA ETA INFORMAZIO SISTEMAK

Kodigoa 8.20

Genero Egokitasuna Baxua

Aurrekontua 2.209.275 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	2.271,57	2.186,14	2.192,49	2.183,16	2.209,28	-3,76%	0,29%	-0,43%	1,20%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	0,67%	0,70%	0,69%	0,67%	0,59%	4,48%	-1,43%	-2,90%	-11,94%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa lantzea edota ebaluatzea.
Gizarte zerbitzuei buruzko informazio-sistema mantentzea eta hobetzea
Gizarte zerbitzuen inguruko azterlanak eta ikerketa proiektuak lantzea.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Sexuaren arabera banatzea 2014-2017 Maparen datuak	Sexu aldagaia sartzea 2014-2017 Mapan	Artatutako gizon eta emakumeen kopurua	Generoen arteko aldea aztertu neurri egokiak hartu ahal izateko
Sexuaren arabera banatzea "Eskaintza eta Jarduera" dokumentuan eskaintzen diren datuak	Sexu aldagaia sartzea "Eskaintza eta Jarduera" dokumentuan	Artatutako gizon eta emakumeen kopurua	Generoen arteko aldea aztertu neurri egokiak hartu ahal izateko
Sexuaren arabera banatzea Behagiren adierazle aurreratuen atala	Sexu aldagaia sartzea Behagiren adierazle aurreratuen atala	Artatutako gizon eta emakumeen kopurua	Generoen arteko aldea aztertu neurri egokiak hartu ahal izateko



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Gizarte zerbitzuetan emakumeen eta gizonezkoen arteko egoera bereizgarrien ezaguera ahal izateko eguneratutako estadistiken mantenua eta egokitzapena

Azterlan eta plan guztietan generoa sartzea azterketa maila bezala.

Eskaintza eta Jardueraren dokumentuan oinarritzko datuetan **%96n** genero ikuspegia jaso da.

Gipuzkoako 2014-2017 Gizarte Zerbitzuetako Mapan genero ikuspegia jaso da sexuaren banaketa jaso daitekeen **%100** adierazleetan.

Pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren gainean 2014 urtean egin den inkestan (berekala argitaratuko dena), gizarte-bazterkeriaren adierazleen artean, sexuaren banaketa jaso daitekeen **%100** adierazleetan jaso da.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez:



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana

Kodigoa 8.21

Genero Egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 7.745.128 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	10.638,00	8.158,00	7.262,92	8.401,36	7.745,13	-23,31%	-10,97%	15,67%	-7,81%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	3,29%	2,57%	2,22%	2,56%	2,24%	-21,88%	-13,62%	15,30%	-12,39%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Helburu orokorra da Departamentuko obren eta inbertsioen lizitazioa, esleipena eta jarraipena egitea. Horrez gain, urtero diru laguntza deialdi bat kudeatzen du arlo diferenteetako elkarreentzat eta desgaituentzako laguntza teknikoetako inbertsioak.

Dirulaguntza Deialdi Lau lerro eta bakoitzaren zenbatekoa:

- Gizarte esku hartzeko programak egiteko diru laguntzak/	780.000€
- Prebentzioko eta sentsibilizazioko programak egiteko diru laguntzak./	150.000€
- Gizarte behar berrien eta gizarte arretaren inguruko ikerketa eta berrikuntza proiektuak egiteko diru laguntzak/	20.000€
-Inbertsioak	50.000€
Guztira	1.000.000€

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera *¹

Zerbitzu nagusietan 2014. urtean arreta jaso dutenak:/

Gizonezkoak %51
Emakumezkoak%49

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Ikusten denez ez dago aldageta handirik zerbitzuen erabiltzaileen artean urte batetik bestera. Ikusi beharko da datu hau erakunde guztiek osatuko balute emaitza berdina izaten jarraituko lukeen ala ez.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Genero ikuspuntuaren inguruko hausnarketa Gizarte Ekimeneko planaren inguruan egin da eta bertan batez ere gizarte parte hartzea eta boluntarioritza sustatu nahi da. Baita ere desgaitasun dutenentzat laguntza teknikoak ere kontuan hartu dira batez ere familia ingurunean duen eragina kontuan hartuta.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

EZ

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez: X

¹ Datu hau erakundeek emandako informazioarekin lotu da. Ez dute erakunde guztiek informazioa ematen./



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Aldizkako prestazio ekonomikoak

Kodigoa 8.22

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua
77.977.879 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

1.Taula/Tabla 1

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	66.738,27	66.122,11	74.298,59	74.962,18	77.977,88	-0,92%	12,37%	0,89%	4,02%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	18,50%	20,65%	22,70%	22,20%	24,62%	11,62%	9,93%	-2,20%	10,90%

OHARRA: 2015. urtean, aurrekontuaren luzapena dela eta, programak 2014an izandako antzeko dotazioa du.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Helburu orokorra alde batetik, diru-sarrerak bermatzea ez dituztenei, eta bestetik, laguntza ekonomikoa ematea mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen bere ohizko inguruan mantentzeko (etxea, sendia)

Hartzailea, alde batetik, diru-sarrerak ez dituzten pertsonak eta babes ekonomikorik ez dutenak eta bestetik, laguntza ematen du mendekotasuna duten pertsonen eta bere familien, komunitatean bici nahi dutenentzat erakundeen arretatik kanpo.

Gastu handiena mendekotasunaren legean ezarritako prestazio ekonomikoei bideratuta dago; Kotizatu Gabeko Pentsioak indar handia dute eta baita ere Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza, geroz eta indar handiago duena.

Aurrekontu programa honek Departamentuko jardueraren ildo nagusiak jasotzen ditu, babes ekonomikorik ez dutenentzat alde batetik, eta bestetik, komunitatean arreta jasotako mendekotasuna duten pertsonak, hau da, erakundeen arretatik kanpo.

Programa honek ondorengo ekintzen finantzaketa jasotzen du :



2 Taula

Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2013	2014	2015
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa	36.819.159 €	31.975.975 €	31.701.008 €
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	14.600.000 €	14.881.193 €	14.881.193 €
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa	9.312.963 €	14.458.514 €	14.016.004 €
Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza	2.439.278 €	7.078.936 €	11.381.189 €
Bestelakoak	2.950.716 €	2.785.161 €	2.982.793 €
Guztira	66.122.116 €	71.179.779 €	74.962.187 €

A) Babesgabetasun ekonomikoari buruzkoak:

- Gizarte Ongizateko Fondoa, MGL pentsioak, Kotizatu Gabekoen Pentsioak eta Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza.

B) Mendekotasunaren legearen prestazio ekonomikoari buruzkoak

- Zerbitzuari lotutakoa
- Familia Inguruneko Zaintzetarakoa
- Laguntza Pertsonalerakoa

Oharra: Aurreikusita dago 2015. urtean zehar DBLan 232.515 euroko igoera egitea, KGPan 1.883.270 euroko igoera eta mendekotasun legean aurreikusitako prestazioetarako 3.672.601euroko igoera, 2015etik aurrera MBB 1.1. gradua dutenek eskubidea dutelako prestazio horiek jasotzeko. Horrela, FIZPEN aurreikusita dago 558.225 euroko igoera eta **ZLPEan 3.114.376 eurokoa.**

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Programa ezberdinetako datuak sexuka banatzea da lehenengo pausua da egon litekeen generoen arteko aldea eta neurri egokiak hartzeko	Sexuen arrobera banatzea programa honetan kudeatzen diren hartzaileen datuak	Aldizkako prestazio ekonomikoetako gizon eta emakumeen kopurua	Generoen arteko aldea aztertu neurri egokiak hartu ahal izateko

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

3. taula

Zerbitzu nagusietan 2015/06/30ean arreta jaso dutenak

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa	8.663	% 38,54	% 61,46
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	2.937	% 41,30	% 58,70
Laguntza Pertsonalerako Prestazio	2.586	% 26,72	% 73,28
Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoa	135	% 26,67	% 73,33
DBL	1.450	% 70,28	% 29,72
GOF/	337	% 35,31	% 64,69
DGL	110	% 5,45	% 94,55
GUZTIRA	16.219	% 39,60	% 60,40

Ikus daiteke prestazio ekonomiko guztietan emakumeen proportzioa handiagoa dela, bai mendekotasunekin lotuta daudenak, eta baita ere ekonomia baliabidegabeziarekin lotuta daudenak, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren salbuespenarekin, non gizonezkoek nagusitzen dira (%70).

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2015-06-30n/

(Arreta jasotako pertsonen portzentajea Gipuzkoako guztizko biztanleriaren gainean)

713.818	BIZTANLERIA		
	GUZTIRA/POBLACIONTOTAL		
	G/T	G/H	E/M
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa	1,21	0,47	0,75
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	0,41	0,17	0,24
Laguntza Pertsonalerako Prestazio	0,36	0,10	0,26
Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoa	0,019	0,005	0,014
DBL	0,21	0,14	0,06
GOF	0,05	0,02	0,03
DGL	0,015	0,0008	0,015
GUZTIRA	2,26	0,91	1,37

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Ikus daiteke emakumezkoen populazioak estaldura handiagoa duela.

Menpekotasuna duten pertsonen artean arrazoia erraza da: emakumeen bitzita-luzera handiagoak piramide demografikoa desorekatzea eragiten du adina aitzinatuetan.

Kotizatu Gabeko Pentsioari dagokionez, adinaren tarte irizpide izanik, 65 urtetik beherako onuradunen artean ikus daiteke % 52,59ak gizonezkoak direla eta % 47,41ak emakumezkoak. Hala eta guztiz ere, 65 urtetik gorako onuradunen artean, % 75,92ak emakumezkoak dira, %24,08ak gizonezkoak. Honen arrazoia, nagusiki, adina horietako emakumezkoak behar adina kotizatu ez dutela kotizatutako pentsio baten eskubidea izateko.



Bestalde, esan beharra dago, etxeetan menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileak batez ere emakumezkoak direla, % 94,60ak FIZPan eta %67,10 LPPEan, hain zuzen ere.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Arlo honen helburu nagusia behartsuei diru sarrerak ematea da, etxeko arretaren laguntza nabarmenduz baita ere (Mendekotasunaren Legearen prestazio ekonomikoak).

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

Bai. 2015eko martxoan Familia inguruneko Zaintzetarako eta Mendekotasuna duten Pertsonen Zaintzaileen babeserako jarraipen ereduaren txostena argitaratu da, onuraduren eta zaintzaileen egoeraren proiektu pilotoa eta bertan aztertu dira zainketen intentsitatea, arretaren kalitate zuzena, zaintzaileek baldintza egokitan lan egitea, inguru seguru batean ematea, zaintzaileari eman beharreko laguntzak eta abar.

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen arreta

Kodigoa 8.30

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 25.311.308 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTO (miles de euros)	23.090,00	21.819,13	22.847,00	22.740,80	25.311,31	-5,50%	4,71%	-0,46%	11,30%
%PPTO. PROPIO DPTO.	7,19%	7,14%	6,86%	6,93%	7,33%	-0,70%	-3,92%	0,99%	5,78%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Aurrekontu programa honek Departamentuak gizarteratzearen arloan eta indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako arretaren arloan garatzen dituen jarduketa ildo nagusiak biltzen ditu, inbertsioak eta aldizkako prestazio ekonomikoak alde batera utzita.

Gizarteratzeari dagokionez, helburu orokorra da bazterkeria edo marjinazio sozialeko egoeran dauden pertsonen bigarren mailako arretako gizarteratzeari zuzendutako prozesuak egiteko laguntza profesionala ematea.

Indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arretari dagokionez, funtsezko helburua da biktimak izatea beren prozesuetako eta ahalmentzearen protagonistak, liberazio pertsonaleranzko bidean aurrera egin dezaten.

Hartzaileak:

- Bazterkeria edo marjinazio sozialeko egoeran dauden pertsonak, gizarteratze prozesu bat egiteko gaitasuna eta motibazioa dutenak.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haien kargura dauden pertsonak.
- Salbuespenezko egoeren ondorioz, eratorritako babesgabetasun egoeran, larrialdi egoeran edo premia sozialeko egoeran dauden pertsonak.
- Pertsona desgaituak.

Zerbitzuaren aurrekontu programak jarduketa hauen finantzazioa biltzen du:

A) Gizarteratzeko egoitzei dagokienez, programa honek hitzarmenpeko plazen foru sarea finantzatzen du.



- B) Era berean, egoitza inplikatzan ez duten hainbat gizarteratze baliabide daude: eguneko zentroak, familia esku-hartzea, arreta psikologikoa eta laguntza espezializatua, batez ere.
- C) Indarkeria matxistaren biktimei eskainitako arretari dagokionez:
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta adingabeen arretarako egoitzak.
 - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta adingabeen arreta psikosozialeko programa.
 - Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako laguntza soziojuridikoa.
- D) Gizarte Larrialdien Koordinazioko Foru Zerbitzua: Berehalako arreta gizarte larrialdiko edo premia sozialeko egoeren aurrean, gizarte zerbitzuen esku-hartzea behar badute, eta zerbitzuen arteko esku-hartzeen koordinazioa bermatzea.
- E) Desgaituentzako zentro okupazionalak.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Bultzatzea genero ikuspegia txertatu dadila gizarte bazterketa edo marjinazio egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko programa, prestazio eta zerbitzuetan.	Sexuaren arabera bereiztea bazterketa edo marjinazio sozialeko egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze programetako jardueren datuak.	Programa kopurua	3
Bermatzea arreta integraleko zerbitzua indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta adingabeei, ahalmentzearen ikuspegitik.	Sexuaren arabera bereiztea indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzendutako arreta integraleko programen jarduera datuak.	Programa kopurua	4
	Bereiztea, dagozkion programetan, indarkeria matxistaren biktimak eta biktimarioak.	Programa kopurua	4
Sustatzea genero ikuspegia premia eta larrialdi sozialetan esku-hartzea	Sexuaren arabera bereiztea gizarte larrialdien koordinazio zerbitzuaren jardueraren datuak./	Programa kopurua	1

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

3. taula. Zerbitzu nagusietan arreta jaso zuen biztanleria 2014an

	GUZTIRA / TOTAL	GIZONEZKOAK/ HOMBRES	EMAKUMEZKOAK / MUJERES
Gizarteratze zentroak/ Alojamientos inserción social	830	77%	23%
Gizarterratze eguneko zentroak / Centros de día de inserción social	365	84%	16%
Gizarte larrialdiak / Urgencias Sociales	388	49 %	51 %
Desgaituentzako okupazio zentroak / Centros Ocupacionales. Personas discapacitadas	845	65%	35%
Indarkeria matxistari zaintza / Atención a la violencia machista	759	8%	92 %
GUZTIRA / TOTAL	3.187	55%	45%

Ikusi daiteke gizonezkoen proportzioa handiagoa dela gizarteratzeko egoitza eta eguneko zentroetan, eta baita ere desgaituentzako zentro okupazionaletan (hauetan diferentzia txikiagoa da). Bestalde, emakumeen proportzioa handiagoa da indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako arretan. Gizarteratze programetan (egoitzarik gabe) ez da sexuaren datua jasotzen.

4. taula. Indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako zerbitzuetan arreta jaso zuen biztanleria/ 2014an

	GUZTIRA / TOTAL	GIZONEZKOAK/ HOMBRES	EMAKUMEZKOAK / MUJERES
Emakumeak Indarkeria matxistaren biztimei egoitza / Centro residencial de atención a mujeres víctimas de violencia machista (1)	125	20%	80%
Adingabeak eta emakumeak indarkeria matxistaren biztimei arreta psikologikoa / Atención psicológica a mujeres y personas menores de edad víctimas de violencia machista (2)	591	6%	94%
Emakumeak indarkeria matxistaren biztimei arreta juridikoa / Atención jurídica a mujeres víctimas de violencia machista (2)	43	0%	100%
TOTAL	759	8%	92%

- (1) Indarkeria matxistaren emakume biktimeentzako egoitza zentroan emakumeen ardurapean dauden pertsonen ere arreta eskaintzen zaie: Haurrak eta mendeko helduak.
- (2) Indarkeria matxistaren emakume biktimeentzako arreta psikologikoko eta juridikoko programetan gizonezkoen ere, erasotzaile nahiz biktimei, arreta eskaintzen zaie. Ikus 5. taula./



5. taula. 2014an zehar indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako arreta psikologikoko programan artatutako biztanleria/

	GUZTIRA / TOTAL	GIZONEZKOAK/ HOMBRES	EMAKUMEZKOAK/ MUJERES
% 96 Biktimak / víctimas (96 %)	568	% 6	%94
% 4 Erasotzaile / Victimarios (4%)	23	%100	%0
TOTAL	591	%10	%90

6. taula. 2014an zehar programako zerbitzu nagusiek izan duten estaldura
(arreta emandako pertsonak, 100 biztanle bakoitzeko).

	Biztanle ¹ 708.631 habitantes ²		
	GUZTIRA / TOTAL	G / H	E / M
Gizarteratzeko egoitzak / Alojamiento inserción social	0,12	0,09	0,03
Gizarteratze eguneko zentroak / Centros de día de inserción social	0,05	0,04	0,01
Desgaituentzako okupazio zentroak / Centros Ocupacionales. Personas discapacitadas	0,12	0,08	0,04
Gizarte larrialdiak / Urgencias Sociales	0,05	0,02	0,03
Indarkeria matxistari zaintza / Atención a la violencia machista	0,11	0,02	0,09
GUZTIRA / TOTAL	0,45	0,25	0,20

Biztanleria osoaren gaineko estaldura handia da, baina kontuan hartu behar da jarduketak oso desberdinak daudela bertan.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Aurrekontu programa honen barruan sartzen diren jarduketak oso desberdinak dira, elkarren artean zerikusi txikia dutenak.

Oro har, ikusten da gizonek gehiago erabiltzen dituztela gizarteratze baliabideak emakumeek baino; diferentzia txikiena zentro okupazionalen kasuan ematen da. Ikerketa zientifikoek erakusten dute emakumeek zerbitzu mota hau erabiltzen dutela bakar bakarrik andeatze pertsonala oso altua denean; hau da, emakumeek denbora gehiagorik mantentzen dute beren autonomia, eta gizarteratze baliabideetara jotze dute soilik muturreko egoeran daudenean.

Bestalde, ezinbestekoa da datu bilketa bereizi bat egitea gizarteratze programa guztietarako, bereziki familia esku-hartzeetarako, horietan adingabeak beren kargura dituzten familiek parte hartzen baitute.

¹ EUSTATaren iturria

² Datos de EUSTAT



Kontuan hartuta indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako programen hartzaileak emakumeak direla (badaude beste sexuko biktimak ere, seme-alabak adibidez), azterketak erakusten du emakumeen gehiegizko ordezkartza bat datorrela programen helburuarekin.

Bestalde, gizarte larrialdien koordinazio zerbitzuen telefono bidezko eta aurrez aurreko esku-hartzei buruz egun eskura ditugun datuekin hipotesi bat atera dezakegu; hau da, datu kopuru handia dagoela Gizarte Zerbitzuen Sisteman antzematen ez arren muturreko premia egoeran dauden emakumeekin edo egun sortu zaizkien premietara egokituta egiten diren esku-hartzei dagokienez.

Larrialdi eta premia sozialen aurrean egiten diren esku-hartzeen kasuan, datu-bilketarako sistema aldatzeari ekin zaio, datuak sexuaren arabera bereizita bildu ahal izateko, batez ere in situ egiten diren esku-hartzeetan.

Nolanahi ere, emakumeak gehiengoa dira, nabarmen, gizarteratze zentroetako arreta langileen artean, gainerako gizarte zerbitzuetan bezalaxe.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Pertsonen garapenean eta bizi-kalitatean eragina duten oinarriko gaitasunen zerrenda kontuan hartuta, lehentasuna dute hauek:

Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Biktimen Arretako Atalari dagokionez:

- Zaintza egokiak
- Etxebizitza egokia eta segurua
- Osasuna
- Indarkeria eza

Gainera, berariaz aipatu behar da premia egoeren identifikazioaren garrantzia, eta arlo horretan esku-hartzeko aukerak.

Zeharka, emakumeen ahalmentzearen bidez, zera lortzen da:

- Diru sarrerak
- Aisialdia
- Parte-hartze politiko eta soziala
- Soldatapeko lana
- Hezkuntza eta ezagutza

Gizarteratze baliabideei dagokienez, dimentsio hauei ematen zaie lehentasuna:

- Zaintza egokiak
- Etxebizitza segurua eta egokia
- Osasuna

Gainera, zeharka eta bigarren mailan, alderdi hauek ere lantzen dira:

- Diru sarrerak
- Aisialdia
- Soldatapeko lana
- Hezkuntza eta ezagutza/



6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

EZ

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2015	328.223.069 euro
		2016	345.378.480 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Haur eta Nerabeen Babesa

Kodigoa 8.31

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 42.712.430 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTO (miles de euros)	30.011,00	39.072,00	39.796,00	39.633,07	42.712,43	30,19%	1,85%	-0,41%	7,77%
%PPTO. PROPIO DPTO.	11,76%	12,29%	12,16%	11,58%	12,37%	4,51%	-1,06%	-4,77%	6,79%

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren %12,37 hartzen du; datu horrek agerian uzten du bere garrantzia. Gainera, 2015eko itxieran, nabarmen handituko da behin betiko gastua.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Aurrekontu programa honek Departamentuak adingabeen arloan garatzen dituen jarduketa ildo nagusiak biltzen ditu, inbertsioak alde batera utzita. Departamentuaren aurrekontuaren zati handi bat hartzen du programa honek.

Helburu orokorra da arreta ahalik eta baldintza onenetan ematea babesgabetasun arrisku egoeran edo babesik gabe dauden adingabeei, egoitza harrera edo familia harrera bidez (adingabea ohiko ingurunetik atera behar denean), nahiz etxean bertan esku hartuz, egoerak hori aholkatzen duenean./

Nori zuzentzen da:

Gipuzkoan 120.607 adingabe daude guztira, eta programa honen hartzaileak dira Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden edo babesik gabe egoteko arriskuan dauden adingabeak, eta baita haien familiak ere.

Gastuaren zatirik handiena egoitza bidezko harrera sareari zuzentzen zaio funtsean; hala ere, garrantzitsua da, baita ere, familia esku-hartzeetan eta laguntza ekonomikoetan egiten den gastua.

Programak jarduketa hauen finantzazioa biltzen du:



2.Taula. Aurrekontu programan barruan eta aurrekontu gastuan sartutako ekintza orokorrak

	2013		2014	
Balorazioa eta orientazioa / Valoración y orientación	1.429.608	3,66%	1.481.829	3,72%
Familiar esku hartze / Intervención familiar	3.613.202	9,25%	3.066.603	7,71%
Familia harrera / Acogimiento familiar	1.962.100	5,02%	2.073.870	5,21%
Abusuak jasan dituzten adingabeentzako tratamendu / Tratamiento de abusos a menores	797.282	2,04%	831.139	2,09%
Egoitza harrera / Acogimiento residencial	23.594.092	60,39%	23.867.645	59,97%
Laguntza ekonomikoak / Ayudas económicas	3.150.000	8,06%	3.550.000	8,92%
Beste / Otros	4.525.890	11,58%	4.925.464	12,38%
GUZTIRA / TOTAL	39.072.174	100,00%	39.796.550	100,00%

A) Harrerari dagokionez, programa honek zaintza plazen foru sarea finantzatzen du, eta baita ere babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako familia harrerarako programa:

- Egoitza zentroak
- Harrera familiak

B) Familia ingurunean arreta eskaintzeko laguntzari dagokionez:

- Esku-hartze familiarreko programak, haurrak beren familia nukleoan mantentzeko

Azkenik, hemen sartzen da, baita ere, haurren babesgabetasuna balioztatzeko jarduera. Balioztatzea funtsezkoa da haurren diagnosirako eta orientaziorako, indarrean dagoen legedia betez./

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

3. taula. Zerbitzu nagusietan arreta jaso zuen biztanleria 2014an/

	GUZTIRA TOTAL	GIZONAK/ HOMBRES	EMAKUMEAK/ MUJERES
Guztira: adingabeko pertsonak / Total personas menores de edad	120.607	51,28%	48,72%
Balorazio eta orientazio Zerbitzua / Servicio de valoración y orientación	826	55,97%	44,03%
Familia esku hartzeko Programak / Programas de intervención familiar	1622	56,25%	43,75%
Familia harrera / Acogimiento familiar	327	56,27%	44,34%
Egoitza harrera / Acogimiento residencial	292	63,01%	36,99%
Laguntza ekonomikoak / Ayudas económicas	776	61,00%	39,00%
GUZTIRA / TOTAL	3.843	58,30%	41,70%

Ikus daiteke mutil gehiago daudela zerbitzu guztietan, gora-behera batzuekin.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2014an (1.000 adingabetik zenbatak jaso duten arreta)

Adingabe guztiak kontuan hartuta, intzidentzia txikia du; hala ere, Europako altuenetakoa da (Iturria: SIIS).

Biztanle 120.607 habitantes	GUZTIRA/ TOTAL	G H	E M
Balorazio eta orientazio Zerbitzua / Servicio de valoración y orientación	6,8	3,8	3
Familia esku hartzeko programak / Programas de intervención familiar	13,4	7,5	6,9
Familia harrera / Acogimiento familiar	2,7	1,5	1,2
Egoitza harrera / Acogimiento residencial	2,4	1,5	0,9
Laguntza ekonomikoak / Ayudas económicas	6,4	3,9	2,5
GUZTIRA / TOTAL	31,8	18,6	3,2

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Azterketak agerian uzten du arreta jasotzen duten erabiltzaileetatik, mutilak direla nagusi. Horren arrazoia izan daiteke bakarrik dauden adingabe atzerritar ia denak mutilak direla.

Aitzitik, emakumeak dira nagusi adingabeentzako baliabideetan arreta ematen duten langileen artean, gainerako gizarte zerbitzuetan bezalaxe.



5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Eremu honetako jarduera nagusia adingabeen zaintzan datza, gainera, aisialdiaren hezkuntza erabilera ere nabarmentzen da.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

Ez

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez:



KABIA FORU ORGANISMO AUTONOMOA

ORGANISMO AUTONOMOA	KABIA	2015	10.127.426 euro
		2016	7.724.061 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena KABIA

Kodigoa

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 7.724.061 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako organismoa autonomoarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)					7.724,06				
DEPARTAMANTUAREN AURREKONTUAREKIKO %					100,00%				

Sortu berria den programa bat denez gero ez daukagu informazio hori.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Foru organismo autonomoaren fun tsezko helburua honakoa da: Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizarte Zerbi tzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, ezarritako eskumen esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak agindutako zerbitzu eta funtzioak kudeatzea, ematea eta gauzatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen kudeaketa mandatuak lehenik eta behin izango dira udal titularitateko bigarren mailako arretako zerbitzuen kudeaketari lotutakoak, adineko pertsonentzako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitzei eta eguneko zentroei dagokienez.

2016ean lau egoitzen kudeaketa bere gain hartuko du Kabiak: Azkoitiako San Jose, Elgoibarko San Lazaro., Villabonako Santiago eta Zumaiako San Juan.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Kabiako plangintza eta jardueran genero ikuspegia txertatu	Kabiako ereduari genero ikuspegia txertatu	Dokumentua egin	Dokumentua
Kabiako plangintza eta jardueran genero ikuspegia txertatu	Kontratuaren genero klausulak txertatu	Lizitazio prozesu berriak	2



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak
Kabiako informazio sistemak aztertu, eta sexu aldagaia ez dagoen kasuetan, egokitu	

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Kabiak kudeatzen duen aurrekontuan, genero ikuspegitik, hiru aldagai nagusi kontuan izan behar dira:

1. Egoitzetan dauden egoiliarak.
2. Egoitzetako eta Kabiako zerbitzu zentraletako langileak.
3. Kabiako Zuzendaritza eta Kudeaketa organoak.

1) EGOILIARRAK

2015-2017ko Gipuzkoako gizarte zerbitzuen maparen arabera adinekoentzako egoitza zentroak Eremuen arabera egokitzen dira. Hori horrela, datu kuantiboen azterketa egiterakoan, Eremuka jaso dira.

Beheko taulan ikus daitekeenez, Kabiak artartzen dituen pertsonen artean, emakumeak nagusitzen dira: %64.

KABIAK KUDEATUKO DITUEN EGOITZETAN ARTATUTAKO PERTSONAK (2015-06-30)				
EREMUA		183	118	65
%		100	64	36
AZPIESKUALDEA	EGOITZA	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
DEBA KOSTA	ELGOIBAR-SAN LAZARO	48	30	18
IRAURGI	AZKOITIA-SAN JOSE	53	33	20
UROLA KOSTALDEA	ZUMAIA-SAN JUAN	51	35	16
TOLOSALDEA	VILLABONA-SANTIAGO	31	20	11

Gipuzkoa mailan, eta Eremuen arabera aztertuta, artatutako pertsonen artean emakumeak nagusitzen direla ikus daiteke ere bai. Kabiaren kasuan, proportzio hori Gipuzkoakoa baino txikiagoa da, eta bere Eremuko antzeko.



ADINEKOEN EGOITZETAN ARTATUTAKOAK 2015-06-30			
GIPUZKOA	4.418	3.094 (%70)	1.324 (%30)
KABIAREN EREMU BEREAN DAUDEN EGOITZAK	840	559 (%66)	281 (%34)
KABIAN	183	118 (%64)	65 (%36)
AZPIESKUALDEAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
BERGARALDEA	99	76	23
BIDASOALDEA	425	308	117
BURUNTZALDEA	253	163	90
DEBA ERDIA	264	185	79
DEBA KOSTA	96	63	33
DONOSTIA	1472	1084	388
IRAURGI	194	124	70
LEINTZ IBARRA	340	222	118
OARSOALDEA	330	223	107
ORIA GARAIA	256	182	74
TOLOSALDEA	327	225	102
UROLA GARAIA	139	92	47
UROLA KOSTALDEA	223	147	76

2) LANGILEAK

2.1. Egoitzak

Beheko taulan ikus daitekeen moduan, egoitzetako langileen %95a emakumeak dira. Gizonak, daudenean, eginkizun ez-asistentzialetan jarduten dira (mantentze lanak, gidariak, harrera).

EGINKIZUN MOTA	AZKOITIA		ELGOIBAR		VILLABONA		ZUMAIA		4 Egoitzak			GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	GUZTIRA	%E	%G
ASISTENTZIAZKOA	34	0	27	1	22	0	26	2	109	3	112	97	3
KUDEAKETA	1	0	1	0	1	0	2	0	5	0	5	95	5
EZ ASISTENTZIAZKOA	1	1	2	0	1	0	0	2	4	3	7	57	43
BESTE LANGILE BATZUK	10	1	14	0	7	0	8	1	39	2	41	95	5
GUZTIRA	46	2	44	1	31	0	36	5	157	8	165	95	5
%	96	4	98	2	100	0	88	12	95	5	100	95	5

E: Emakumeak/ G: Gizonak

2.2. Zerbitzu Zentralak

Kabiako egitura zehazten joaten den heinean, Zerbitzu Zentralak beteko duten funtzioa definitzen, zabaltzen eta egonkortzen joango da. Egun, Zerbitzu Zentralean 3 langile daude lanean: 2 emakume (gerentea eta administraria) eta gizon bat (ekonomilaria).



3) KABIAKO GOBERNU ETA ZUZENDARITZA ORGANOKAK.

Kabia F.O.A.ko gobernu eta zuzendaritza organoak honakoak dira: Gobernu Batzordea, Lehendakaria, Lehendakariordea eta gerentea.

12/2014 Foru Arauan, Kabiaren eratzeari buruzkoan, ondorengoa adierazten da (5.4.artikuluari): "Batzar Orokorra osatzerakoan sexu bakoitzaren ordezkari gutxienez %40koa izango da". Egun proportzio hori mantentzen dela adieraz daiteke, emakumeak %62,5 baitira. Gainera, Lehendakaria eta Lehendakariordea emakumeak dira. Beraz, emakumeen presentzia Kabia F.O.A.ko organoetan nagusia da.

Kabia F.O.A. antolatzen joaten den heinean, bere informazio sistemak hobetzen joango da; datu estatistikoak eta kudeaketari buruzkoak hobetuz. Txostena egiteko datuak, Gizarte Politika Departamentuaren Extranetetik eskuratu dira; eta bertan, sexu aldagaiaren arabera banatuak daude. Extraneteko datuen ustiaketa zabalago batek, hausnarketarako beste informazio bat eskuratzen ahalbidetuko dio Kabia F.O.A.ri.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Kabiako egitura osatzen doanez, une honetan hausnarketa kualitatibo sakon bat egitea zaila gertatzen da. Datuen ustiaketa sakonago bat egin beharra dago, ondorio egokiagoak ateratze aldera. Fitxa honen bidez lehen hurbilketa bat egitea izan du helburu. Egoitzen kudeaketak aurrekontuan duen pisua ikusita, garrantzitsua da gutxienez, artatzen diren pertsonen kopuruak ezagutzea eta baita langileenak ere. Datu horiek sexu aldagaiaren arabera bereiztea, gutxienez, emakumeek Kabia programan duten pisu handia nabarmentzeko erabilgarria da.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Programa honek nabarmenki ondorengo gaitasunean eragiten du: zaintza egokiak jasotzea.

Kabia F.O.A.ren helburua baita adineko pertsonentzako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitza eta eguneko zentroetan arreta zerbitzua ematea.

Bestetik, Osasunarekin zerikusia duten gaitasunak lantzen dira ere bai. Egoitzetan bertan baitaude, mendiku eta erizainak, egoiliarren osasun behar eta tratamenduei aurre egin ahal izateko.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

Kabia F.O.A. sortu berria da; eta oraingoz ez du horretarako denborarik eman.

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez: